



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2019KPOL0020

144/2019 ALKATE DEKRETUA
2019KO KIROLDEGIKO ABONOAREN PREZIO PUBLIKOAREN ERROLDA ONARTZEKO.

Kontuan harturik udal honek onartuak dituen 2019ari dagozkion ordenantza fiskalak, zehazki 1 eta 2. artikuluetan jasotzen denaren arabera, 2019ko kiroldegiaren aldeko prezio publikoaren erroldaren berri ematea, zeina udal bilketa zerbitzuak egin duen, zehazki 34.112,50€-takoa dena 2019/080 karguan jasotakoaren arabera.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren gaien indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dituen ahalmenak erabiliz, honakoa

EBATZI DU:


LEHENA.- 2019ko udalaren kiroldegiaren aldeko prezio publikoaren errolda onartzea, zehazki 34.112,50€-takoa dena, 2019/080 karguan jasotakoaren arabera, eta 382 ordainagirik osatzen dute.

BIGARRENA.- Dekretu honen berri Kontu-hartzaileari ematea.

HIRUGARRENA.- Udalbatzak gauzatzen duen hurrengo ohiko bilkuran Dekretu honen berri ematea.

Ibarra, 2019ko apirilaren 11

IDAZKARIA


Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

ALKATEA


Mikel Agirrezabala Ezkurdia